TABAKALERA

www.tabakalera.eu

Urriak 4-11 Octubre
2013

HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK

CIUDAD Y OTRAS POLÍTICAS

Donostia
San Sebastián

Donostia
San Sebastián

Arkitektura astea:
hitzaldiak, eztabaidak eta
Tabakalerara bisitak
Semana de la arquitectura:
conferencias, debates, talleres
y visitas a Tabakalera

CIUDAD Y OTRAS POLÍTICAS

HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK

Urriak 4-11 Octubre
2013

TABAKALERA

www.tabakalera.eu

TABAKALERA

Arkitektura Astearekin lotuta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak eta Atari Cultura Arquitectónica elkarteak ere hainbat jarduera antolatu dituzte.

Con motivo de la Semana de la Arquitectura, el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro y la asociación Atari Cultura Arquitectónica también han organizado diversas actividades.

Informazio gehiago / Más información:
www.coavn.org
www.atari-ka.org

EGOITZAK / SEDES

Tabakalera: Duque de Mandas, 52
943 011 311

Le Bukowski. Musika kluba: Egia kalea, 18.
Fundación Cristina Enea Fundazioa:
Duque de Mandas, 66.
Arkitektura Goi Eskola Teknikoa /
Escuela Técnica Superior de Arquitectura (EHU/UPV):
Oñati Enparantza, 2.

BISITA GIDATUAK TABAKALERAKO OBRAN

Arkitektura Astea aitzakia gisa hartuta, Tabakalerak ateak zabalduko ditu hiritarrei eraikinaren barrualdean gertatzen ari den eraldaketa erakutsi ahal izateko. Urriaren 7tik 11ra, bisita gidatu bat izango da egunean.

Ordutegia: 12:45 – 14:00
Bisitaren hizkuntza: astelehen, asteazken eta ostiralean euskaraz / astearte eta ostegunean, gaztelaniaz.

Parte-hartzaileak: gehienez 15 pertsona bisita bakoitzean.

Izenematea: www.tabakalera.eu
Bisitatuko den espazioaren egoera berezia dela eta, segurtasunagatik, soilik adin nagusiek izango dute bertara sartzeko aukera.

Eraikinaren berritze-lanekin lotuta, bestalde, Arkitektura Astean aurkeztuko dugu obraren ikus-entzunezko, argazki bidezko eta soinuzko dokumentazioa jasoko duen plataforma digital berria.

VISITAS GUIADAS A LA OBRA DE TABAKALERA

Con motivo de la Semana de la Arquitectura, Tabakalera abre sus puertas para mostrar el desarrollo de la obra que se está llevando a cabo en el edificio. Del 7 al 11 de octubre, de lunes a viernes, se ofrecerá una visita diaria.

Horario: 12:45 – 14:00
Idioma de las visitas: lunes, miércoles y viernes en euskera/ martes y jueves en castellano.

Participantes: máximo 15 personas en cada visita.
Inscripción: www.tabakalera.eu

Dadas las especiales circunstacias del espacio, por cuestiones de seguridad, solo podrán participar en las visitas personas mayores de edad.

En relación a la obra de renovación del edificio, la Semana de la Arquitectura también será el marco para presentar la nueva plataforma digital desarrollada para visualizar la documentación audiovisual, fotográfica y sonora generada con motivo de dicha obra.

URRIA
OCTUBRE

Egitaraua / Programa

HIRIA ETA BESTELAKO POLITIKAK
HERENTZIAK, LURRALDEAK ETA ERAIKUNTZA KOMUNAK

Urriaren 4tik 11ra Tabakalerak ere Arkitektura Astea ospatuko du. Hiri kontzeptu berriari buruz hausnartu, esperientziak trukatu eta pentsamendu eremu berriak sortzeko helburuarekin hitzaldi eta lantegi sorta antolatu dugu.

Gainera, eraikinean bisita gidatuak ere izango dira obraren nondik-norakoak ezagutzeko, eta berritze lanen jarraipen gisa sortzen ari garen ikus-entzunezko, argazki eta soinu bidezko dokumentazioaren erakusleku izango den plataforma digitala ere aurkeztuko da.

Azkenik, arkitektura-ondarearen inguruko hausnarketa prozesu bat ere martxan jarriko da aste honetan. Saioa itxia izango den arren, ondoren dokumentazioa eskuragarri jarriko da.

HITZALDI ETA LAN-MAHAIAK

Urte luzez hiria eraikitzeko prozesua objektuen ekoizpen soil gisa ulertua izan da. Gaur egun ditugun beharrak, ordea, gertuago daude desegitetik, berrerabilpenetik, birpolitizatzetik edo esanahi berriak ematetik, erabilpenik gabeko "zerak" (estetikak; garaikideak izan edo ez) pilatzen jarraitzetik baino.

Hiria eta bestelako politikak jardunaldien bitartez esperientzia teoriko-praktikoak oroitu eta horietan arakatu nahi dugu, diskurtsoak gurutzatu, manifestuak erreskatatu eta egungo praktikak harilkatu, ekoizpen kritikorako espazio berriak sortzeko asmoarekin.

Hiria eta bestelako politikak Ibon Salaberria eta Manu Fernándezek koordinatu dute. Ekimen hau Tabakalerak joan den ekainean Egia auzoan erabilpenik gabeko espazioak detektatzeko egindako mapaketarekin abiatu zuen **Trans¨itoak** proiektuaren baitan kokatzen da.

CIUDAD Y OTRAS POLÍTICAS
HERENCIAS, TERRITORIOS Y CONSTRUCCIONES COMUNES

Con motivo de la Semana de la Arquitectura, entre el 4 y el 11 de octubre, Tabakalera presenta un amplio programa de conferencias y talleres para reflexionar sobre el nuevo concepto de ciudad, compartir experiencias y generar espacios de pensamiento.

Además, se realizarán visitas guiadas al edificio para dar a conocer el desarrollo de la obra, y se presentará la plataforma digital creada para dar visibilidad a la amplia documentación fotográfica, audiovisual y sonora generada con motivo de los trabajos de renovación.

Finalmente, durante esta semana arrancaremos un proceso de reflexión en torno al patrimonio arquitectónico. Aunque la mesa de trabajo será cerrada, posteriormente se publicará la documentación de la misma.

CONFERECIAS Y MESAS DE TRABAJO

Habiendo sido tratada la construcción de la ciudad como simple ejercicio de producción de objetos, nos encontramos ahora con necesidades más cercanas al desmantelamiento, a la re-utilización, a la re-politización y re-significación, que a continuar acumulando "inservibles" en forma de estéticas más o menos contemporáneas.

En ***Ciudad y otras políticas*** queremos recordar y hurgar en experiencias teórico-prácticas, queremos cruzar discursos, rescatar manifiestos y re-enlazar prácticas actuales para generar nuevos espacios de producción crítica.

Ciudad y otras políticas, coordinado por Ibon Salaberría y Manu Fernández, da continuidad a la línea de reflexión que Tabakalera inició con **Trans¨itoak** cuya primera actividad fue el mapeo colectivo de espacios en desuso de Egia realizado el pasado mes de junio.

4

Ostirala / Viernes
Le Bukowski
17:15 – 19:00

PaisajeTransversal

#EgiaMapa Trans¨itoak proiektuan
Tabakalerak martxan jarritako Trans¨itoak proiektuaren baitan, Paisaje Transversalek koordinatu zuen #EgiaMapa prozesuaren emaitzen aurkezpena. Egia auzoko erabilerarik gabeko espazioen katalogoa aurkeztuko da eta baita espazio horiek aktibatzeko beharrezko izango diren protokolo eta estrategiak definitzeko martxan den lana ere.

#EgiaMapa en Trans¨itoak.
Presentación de los resultados del proceso #EgiaMapa, coordinado por el colectivo Paisaje Transversal en el marco del proyecto Trans¨itoak de Tabakalera. Se presentará el catálogo de espacios en desuso del barrio de Egia y el trabajo que se está llevando a cabo para definir protocolos y estrategias de activación de dichos espacios.

Increasis

Increasis plataformaren eta bi egunez egingo diren lan-mahaien aurkezpena. Gaia: **Hiritarren ekintza zuzeneko hirigintza – Erronkak / Aukerak.**
Increasis bukatu gabe dauden eraikinak aktibatzeko eta erabilerarik ez duten eremuak biziberritzeko estrategiak proposatzen dituen plataforma bat da.
#EgiaMapa-ko esperientzia eta Egia auzoa adibidetzat hartuta, bi lan-saio dinamizatuko dira profesional, hiriko eragile eta erakundeen artean. Mahai hauek Increasisek eta Paisaje Transversalek koordinatuko dituzte.

Presentación de la plataforma Increasis y de las dos mesas de trabajo de los siguientes días: **Urbanismo de acción directa ciudadana – Retos/oportunidades.** Increasis es una plataforma que propone estrategias de activación de edificios inacabados y de revitalización de territorios en desuso. Partiendo de la experiencia de #Egiamapa como ejemplo, y de la situación del barrio de Egia, se dinamizarán dos sesiones de trabajo colaborativo entre profesionales, agentes ciudadanos e institución. Estas mesas estarán coordinadas por Increasis y Paisaje Transversal.

6

Igandea / Domingo
Plaza Haundi (Egia)
11:30 – 13:30

Re-think!
Hiri-altzariak eraikitzeko tailerra haurrentzat
Taller infantil de construcción de mobiliario urbano

Plaza Haundik haurren ekintzetarako egokitzeko beharra zuela nabarmen geratu zen ekainean egin zen Egia auzoaren mapaketan. Tailer honetan behar hori hartuko dugu abiapuntutzat.

Plaza aztertu eta haurrek gogokoen dituzten txokoak bilatuko ditugu. Guztion artean bertan eduki nahiko genituzkeen erabilera eta jarduerak pentsatuko ditugu. Azkenik, kartoizko kaxak, egurrezko oholak eta beste material batzuekin, haurrek beraiek eraikiko dituzte erabilera eta nahi horiek beteko dituzten tramankuluak.

- Lekua: Plaza Haundi (Luis Martín Santos pl.), Egia
- Adina: 5 - 11 urte
- Parte hartzea: tailer irekia eta doakoa da.

Tailer hau Maushausek zuzendu eta koordinatuko du.

En el mapeo realizado en junio en Egia quedó de manifiesto la necesidad de adecuar Plaza Haundi para actividades infantiles. Este taller tomará como punto de partida esa necesidad.

Analizaremos la plaza y localizaremos los lugares preferidos por los niñ@s. Pensaremos los usos y actividades que nos gustaría que sucediesen en ella. Y utilizando cajas de cartón, tablas de madera y otros materiales, ell@s mism@s construirán los artefactos que reúnan esos usos y deseos.

- Lugar: Plaza Haundi (pl. Luis Martín Santos), Egia.
- Edad: de 5 a 11 años.
- Plazas: taller abierto y gratuito.

Taller dirigido y coordinado por Maushaus.

7

Astelehena / Lunes
Cristina Enea

Lantegi-Mintzaldia
Jabetzeak eta talde esperientzia
Taller Coloquio
Apropiaciones y experiencia colectiva
16:00

Moderatzailea: Koldo Telleria Andueza.
Gonbidatua: Dani López, dokumentalaren zuzendaria.
Proiekzioa: "KAMPSA 20 AÑOS". Zuz. Dani López. 53min.
Kampsa, 1992an Pasaia eta Donostia arteko mugan okupatutako etxearen hogei urteko ibilbidea jasotzen duen dokumentala.

Modera: Koldo Telleria Andueza. Invitado: Dani López, director del documental.
Proyección: "KAMPSA 20 AÑOS". Dir. Dani López. 53min.
Documental sobre los veinte años de existencia de la Kampsa, casa okupada en 1992, en la muga entre Pasaia y Donostia.

HITZALDIAK
CONFERENCIAS

Esteban Zamora
18:30

Sarrera: "espazioa eta lurraldeak"
Hiria gatazka eta iraultzarako eremu gisa berreskuratzeak, espazio soziala lurraldeari lotzeko beste modu batzuk pentsatzeko aukera eskaintzen digu.

Introducción: "espacio y territorios"
La recuperación de la ciudad como espacio de conflicto y revuelta emerge como posibilidad para repensar otros modos de territorializar el espacio social.

Jean Pierre Garnier
19:15

Hiri-espazioaren berjabetze kolektiboa: teorizismoaren eta aktibismoaren artean
Lurraldea gobernatzeko modu demokratikoak martxan jartzeak talka egiten du, horiek ezinezko egiten dituen produkzio moduak zalantzan jarri gabe, modu horiek posible egin nahi lituzkeen jendearen ilusioekin.

La reapropiación colectiva del espacio urbano: entre teoricismo y activismo
La puesta en marcha de modos democráticos de gobierno territorial tropieza con las ilusiones de la gente que pretenden hacerlos posibles, sin poner seriamente en tela de juicio el modo de producción que los hace imposibles.

Eva Morales Soler
20:00

Etxe hutsen birsortzea: autogestio kolektibotik ikasten
Sevillako "las corralas"-en etxetik kaleratutako hainbat familiak 15 eraikin huts okupatu dituzte. Talde-esperientzia hori hartuko da abiapuntutzat, etxe hutsen biziberritzeari lotuta, galderak, lorpenak, zaitasunak eta ikasketa prozesuak aurkezteko.

Regeneración de viviendas vacías: aprendiendo de la autogestión colectiva
A partir del proceso colectivo de "las corralas" de Sevilla, en el que familias desahuciadas han ocupado 15 edificios vacíos, se expondrán preguntas, logros, dificultades y aprendizajes, de cara a identificar claves para la regeneración urbana de viviendas vacías.

8

Asteartea / Martes
Cristina Enea

Lantegi-Mintzaldia
Hiritarren ekintza zuzeneko hirigintza – Erronkak / Aukerak I
Taller Coloquio
Urbanismo de acción directa ciudadana – Retos / oportunidades I
16:00

Gonbidatuak: MonoD, Álvaro Sevilla eta ZAWP.
Koordinatzaileak: Increasis eta Paisaje Transversal.
Ze araudi gehitu beharko litzaieke administrazio-protokoloei hiri-eraldaketan hiritarren parte hartze zuzena sustatzeko? / Nola kudeatu eta mantendu liteke ekonomikoki hiritarren ekipamendu kolektibo bat?

Invitados: MonoD, Álvaro Sevilla y ZAWP.
Coordinación: Increasis y Paisaje Transversal.
¿Qué reglamentos se deberían incorporar a los protocolos administrativos para favorecer la implicación directa del ciudadano en la transformación urbana? / ¿Cómo se puede gestionar y sostener económicamente un equipamiento colectivo de los ciudadanos?

HITZALDIAK
CONFERENCIAS

MonoDestudio
18:30

Parte hartzea: ekintza politikoa vs. ekintza estetikoa
Azken aldian asko ugaritu dira parte hartzaile gisa izendatzen diren prozesuak. Sarri, ekintza politikorako baino gehiago eduki estetikodun tresna gisa erabili ohi dira prozesuok. Horrek parte-hartze prozesu batek behar beharreko dituen osagarri kritikoak galtzea dakar.

La participación: acción política vs. acción estética
En los últimos tiempos vivimos una proliferación de los procesos que se denominan participativos que está siendo asumida como herramienta de contenido más estético que de acción política y como esto conlleva la pérdida de la componente crítica que debe acompañar todo proceso participativo.

Álvaro Sevilla Buitrago
19:15

Hirigintza eta egunerokotasuna: hiri-ekoizpena eta esperientziaren gainbehera
Hirigintzak zorra dauka bizitzarekin. Bere teknikek egunerokotasuna hiri-egiturekin, eta hiriaren zentzu eta eduki ekoizpenarekin lotzen zuten askatasun eremuak murriztea ekarri dute.

Urbanismo y vida cotidiana: la producción de ciudad y el eclipse de la experiencia
El urbanismo tiene una deuda histórica con la vida. Sus técnicas han recortado paulatinamente los grados de libertad que articulaban la experiencia cotidiana a las formaciones urbanas, a la producción del sentido y contenido de la ciudad.

Berreibar
20:00

Erabilerarik gabeko industria-eraikinen birmoldaketa proaktiboa
Zer egin dezakegu gure lurraldean barna barreiatutako erabilerarik gabeko industria-eraikinekin? Zer egin dezakegu gure hiriek iraganean zuten jarduera berreskura dezaten? Eibarren kokatutako Berreibar prozesuaren asmoa ekoizpen- eta gizarte-sare baten bitartez hiria birsortzea da, ondaren industriala berreskuratuz.

Reconversión proactiva de edificios industriales en desuso
¿Qué podemos hacer con los edificios industriales en desuso diseminados por todo nuestro territorio? ¿Qué podemos hacer para que nuestras ciudades recobren la actividad que tenían en el pasado? La finalidad última del proceso Berreibar es regenerar la ciudad mediante la creación de una red productiva y social, recuperando el patrimonio industrial eibarrés.

9

Asteazkena / Miércoles
Cristina Enea

Lantegi-Mintzaldia
Hiritarren ekintza zuzeneko hirigintza – Erronkak / Aukerak II
Taller Coloquio
Urbanismo de acción directa ciudadana – Retos / oportunidades II
16:00

Gonbidatuak: n'Undo eta Bat.
Koordinatzaileak: Increasis eta Paisaje Transversal.
Hiri-testuinguru batean zein tresna eta praktikek laguntzen dute arazoen eta aukeren azterketa parte hartzailea? / Zein prozesuk sendotu dezakete hiritarren parte hartze zuzena hiriaren eraikuntza eta eraldaketan?

Invitados: n'Undo y Bat.
Coordinación: Increasis y Paisaje Transversal.
¿Qué instrumentos y prácticas favorecen el estudio participativo de problemas y oportunidades de un contexto urbano? / ¿Qué procesos pueden consolidar la implicación directa del ciudadano en la transformación y construcción del entorno urbano?

HITZALDIAK
CONFERENCIAS

Martí Peran
18:30

Hiria gaiztotu
Arkitektura eta hirigintza izan dira gizarte-bizitza arautu eta otzantzea helburu duten eremuak eraikitzeko gailu nagusiak. Denona dena birpentsatzera garamatzan egungo egoeran, arkitekturaren profanazio urgentziazko bat gailentzen da. Saio honek agindu horri erantzuteko moduen hastapeneko taxonomia bat proposatzen du.

Malear la ciudad.
La arquitectura y el urbanismo han constituido el dispositivo hegemónico para la construcción de escenarios mediante los que regular y domar la vida social. En la tesitura actual que obliga a repensar el común, se impone una urgente profanación de la arquitectura. "Malear la ciudad" propone una inicial taxonomía de los modos de responder a este imperativo.

n´UNDO
19:15

Ukaziotik eraiki
Ukaziotik eraikitzea (n´UNDO) jarrera bat da, erreakzio kultural bat. Arkitekturatik, beste hainbat diziplinarekin batera, pentsamendurako eta ekintzarako oinarri bat ezarri nahi du (Ez eraikitzea, Minimalizatzea, Berrerabiltzea eta Desegitea), lurraldearen eta hiriaren arkitektura jasangarri bat egiteko modu gisa.

Construir desde la renuncia.
Construir desde la renuncia (n´UNDO) es una actitud que, desde la arquitectura y mediante la implicación de diversas disciplinas, pretende generar una base de pensamiento y actuación (No Construcción, Minimización, Reutilización y Desmantelamiento) como forma de hacer arquitectura sostenible del territorio y la ciudad.

10

Osteguna / Jueves
Cristina Enea

HITZALDIAK
CONFERENCIAS

Marta Relats
18:30

Diseinua politika gisa
Gobernu batek, ikerketa gune moduan eta azken hamarkadatako hirigintza egiteko modu tradizionalekin hausteko bide gisa, *Chair of Design as Politics* izeneko katedra sortzea mugarri esanguratsua da. Hiri-espazioaren berreskuraketa adierazten du, hiria, eztabaidarako eta gatazkarako eremu gisa ulertuta.

Diseño como política
La creación por parte de un gobierno de una cátedra llamada *Chair of Design as Politics*, como espacio de investigación y de casi ruptura con las consecuencias de la manera tradicional de hacer urbanismo en las últimas décadas parece un hito significativo. Supone recuperar el espacio urbano, la ciudad, como espacio de debate y controversia.

Ethel Baraona
19:15

Adhocrazia. Posizionamendu politikotik proposamen formaletara
Sistema kapitalistaren krisia balore krisi baten ondorio besterik ez da. Krisi horrek hiritarrak irtenbide berriak bilatzera eraman ditu eta arkitektoak beste arkitektura modu batzuk sortzera. "Besteentzat egitetik" "besteekin egitera" pasatu gara.

Adhocracia. Del posicionamiento político a las propuestas formales
La crisis del sistema capitalista no es más que el resultado de una crisis de valores que ha llevado a los ciudadanos a buscar otro tipo de soluciones y a los arquitectos a intentar crear otro tipo de arquitecturas. Del "hacer para los otros" llegamos al "hacer con los otros".

11

Ostirala / Viernes
Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
Escuela Técnica Superior de Arquitectura

Luntxa terrazan
Lunch en la terraza
14:00

HITZALDIAK
CONFERENCIAS

Xabier Erkizia (Audiolab)
16:00

Donostia Noise
Donostia Noise proiektuaren emaitzen aurkezpena.
Presentación de los resultados del proyecto Donostia Noise.

M-etxea / Straddle3 (Arkitektura Kolektiboak – Arquitecturas colectivas)
16:40

Bestelako hiriaren eraikuntza
Gure motibazioa espazio-arkitektonikoa eta hiri-espazioaren erabilera modu proaktibo batean ikertzea da. Espazioen erabilera bera arkitektura birpentsatzeko modu egoki bat da, tradizionalki arkitekto eta hirigileen papera kontsideratzen dena zabalduz. Gure laborategi eta aktuazio gunea bizi dugun espazioa dela kontsideratzen dugu.

Construcción de la otra ciudad
Nuestra motivación es investigar el uso del espacio arquitectónico y urbano de una forma proactiva. El uso mismo del espacio es una buena forma de repensar la arquitectura, superando el trabajo sobre papel adscrito tradicionalmente a los arquitectos y urbanistas. Nuestro laboratorio y lugar de actuación es el espacio habitado.

Increasis - Paisaje Transversal
17:20

Lan-mahaien emaitzak: Hiritarren ekintza zuzeneko hirigintza - Erronkak / Aukerak.
Resultados mesas de trabajo: Urbanismo de acción directa ciudadana - Retos / oportunidades.

Musika terrazan
Música en la terraza
18:30

Arkitektura astearen amaiera.
Cierre de la semana de la arquitectura.

Hitzaldiak doakoak eta irekiak izango dira, lekua bete arte. Ez da aurretiko izenematerik egongo.
Hitzaldiak streaming bidez zuzenean jarraitzeko aukera izango da www.tabakalera.eu webgunean eta aurrerago lan-mahaien inguruko dokumentazioa ere eskuragarri jarriko da.
Las conferencias son gratuitas y abiertas, hasta completar aforo. No hace falta inscripción previa.
Las conferencias se emitirán en streaming en www.tabakalera.eu y posteriormente se publicará también la documentación sobre las mesas de trabajo.

www.tabakalera.eu